

## KONTROL MOZIOA

### **JATORRIZKO KONTXAKO BARANDAREN ETORKIZUNA dela-eta**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko apirilaren 10ean Gune Publikoen eta Obra eta Hiri Zerbitzuen Batzordean aztertutako Kontxako barandaren inguruko interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Polemika piztu da, berriro ere, hiriko ondarearen inguruan, Udala Kontxan egiten ari den lanen berri izandakoan. Martxoaren lehen hamabostaldian zabaldu ziren argazkien bidez ikusi genuen Kontxako Erlojuetako ingurua birrindua, induskatzeko makinaren ondoan. Martxoaren bukaeran zinegotzi-ordezkariak eman dituen azalpenen arabera, “forjatuak oso egoera txarrean zeuden ...eta barruan duten altzairua herdoiltzen ari da”. Azalpen horretan, aitzitik, ez zuen babestuta dauden elementuen inguruko aipamenik egiten -baranda eta barandari eusten diotenak, kasu- eta ez zuen argitu elementu horiek, zabaldutako irudiek iragartzen zuten moduan, harri anabasan kaltetuta geratu ote ziren.

1999an baranda osorik berritu zenean, 271 piezak banan bana kendu, berritu eta berriz ere jarri ziren. Horregatik, obrak hasi arte bertan direnak (edo ukitu ez diren zonaldeetan daudenak) duela 100 urte Juan Rafael Alday udal arkitektoak diseinatu eta bere agindupean jarri ziren berberak dira. Mozio honi bide eman zion interpelazioan gogorarazi genuen moduan, Kontxako Erlojuetako zatien artean berezitasun bat zegoen: itsasoari begira dagoen lorea duen zatia, guztien artean are eta bereziagoa.

Honetaz galdetuta zinegotzi ordezkariak azaldu zuen erabakita dagoela jatorrizko pieza kendu eta beste bat jartzea; helburua dela, izan ere, molde berri bat egitea eta horrekin, hemendik aurrera, zati guztiak egitea. Esan ere egin zuen jakitun zela zonalde horretako berezitasunaz, baina nola berrituko den oraindik ere erabakitzeko dagoela. Aurreratu zuen, halaber, kendutako zatiak udal biltegira eramateko asmoa, baina etorkizunean beraiekin zer egin ez duela erabaki Udala

Gobernuak. Batzordean ere mintzagai izan zen gai hauen ezagutza nork ote duen edo/eta nori galdetu behar zaion.

Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

1,- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Kontxatik erretiratuko dituen elementuen inbentarioa egin dezala, etorkizunean har daitezkeen erabakien ondoren ere, elementuen jarraipena erraztuko dutena.

2, Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Kontxako elementu babestuen inguruan adituen iritzia jaso ditzala, Ondarearen gaineko Foroan eta Gipuzkoako Foru Aldundian.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia